

/ Nabarmentzekoak

- > Dei egiten zaie hiritar, denda eta ostalaritzari laguntza eskatuz, Gabonetan era egokian birziklatzeko (2. or.)
- > Algortako Etorbidea irekiko da berriz, Torrene eta Mariandresena artean (2. or.)
- > Gospel kontzertua, The Upper Room zazpikotearekin (3. or.)

Argibe elkarteko boluntarioek eta Fidiasko fundazioak, boluntariotzaren sariak jaso dituzte (4. or.)



Gabonetako kontzertuak.

Abenduaren 20, 21 eta 22an, zenbait agertokitan.

Bertsolariak: ALBE Gala. Abenduak 22, larunbata, 19:30ean, Igeretxe jatetxean, Algortako Bertsolari Eskolaren eskutik. Sarrera gonbidapenez.

**A-
GENDA**

Urduritasuna giroan Olentzero eta Mari Domingi laster helduko direla eta

Olentzeroa eta Mari Domingi bere hitzorduak zehazten ari dira Getxora etortzeko eta orokorrean herritarren, eta etorrerarekin bereziki urduri eta ilusioz beterik dauden haurren nahiak asetzeko.

Beste urte batez kaleak Olentzeroren kalejiraren lekukoak izango dira. Getxon barrena auzoz auzo ibiliko dira aipatutakoak, laguntzaileekin batera, haurren artean gozokiak banatzeko; eta haurrek, pozez beteta, beraiek euren eskutitzak eman ahal izango dizkiote ikazkinari. Udalak ikastetxe, haurtzaindegia eta udal egoitzen artean banatutako eskutitzak ez dituenak <http://www.getxo.eus/eu/> udal webgunetik (Gabonak ataletik) ere behera karga daitezke.

Hurrengo lerroetan auzo bakoitzean aurreikusitako jardueren eta ibilbideen inguruko informazioa agertzen da.



ROMO

Antolatzaileak: Zasi Eskola Dantza Taldea, Zitzu Bizian eta Romoko jai batzordea.

ABENDUAREN 22AN

Gobelondon:

- * 18:00: pailazoak.
- * 19:00: umeentzako tailerrak.

Santa Eugenia plazan:

- * 19:30: Dantza plazan.

ABENDUAREN 23AN

San Jose elizako arkupean:

- * 17:30: haurrentzako tailerrak eta harrera Olentzerori eta Mari Domingiri.

ABENDUAREN 24AN

- * 13:00: trikitilariak kalez kale.
- * 17:00: Kalejira, dantzak, Gabonetako abestiak, gozoki-banaketa.
- * 19:00: Olentzero erretzea.
- * 19:30: txokolate jana.

IBILBIDEA: Santa Eugenia plaza - Ezekiel Agirre - Maiatzaren bata - Cervantes - Maiatzaren bata - Gobelaurre - Etxague Jenerala - Urkizu - Kalamua - Kresaltxu - Santa Eugenia plaza.

NEGURI

Antolatzaileak: Txatxalin Gobelako Gurasoen Elkarte, Neguriko Gobela Taldea.

ABENDUAREN 22AN

Gernika parkean:

- * 18:00: kalejira.
- * 19:00: musika, txistulariak, akordeoiak, gaztainak eta txokolatea.

IBILBIDEA: Jolastoki jatetxearen biribilgunea-Makaletako etorbidea-San Esteban egoitza-Gernika parkea.

ALGORTA

Antolatzaileak: Horra Horra Algortako Olentzero Batzordea.

ABENDUAREN 23AN

San Nikolas plazan:

- * 19:30: umeen bertso saioa.
- * 20:30: Taberna Ibiltaria.

ABENDUAREN 24AN

Geltokia plazan:

- * 12:30: umeentzako tailerrak, puzgarriak.
- * 17:00: kalejira Benantziotik hasita.

San Nikolas plazan:

- * 20:00: txokolate jana, txalaparta, bertsolariak...

IBILBIDEA: Sarrikobaso - Illeta - Salsidu - Algortako etorbidea - Mariandresena - Telletxe - Algortako etorbidea - San Nikolas plaza.

ANDRA MARI

Antolatzaileak: Itxas Argia Dantza Taldea.

ABENDUAREN 23AN

Malakaten:

- * 11:30: haurrentzako jolasak, eskulanak.
- * 11:30-16:00: txitxiburduntzia, txistulariek, trikitilariak eta fanfarriak girotuta.

ABENDUAREN 24AN

- * 17:00: kalejira, txistulariek, trikitilariak eta fanfarriak girotuta.
- * 19:00: Olentzero erretzea, musika, dantzak...

IBILBIDEA: Andra Mariko kiroldetgia - Maidagan - Juan Cuadrado - Diliz - Martituri - Zientotxe - Goienetxe - Moreaga, Perune eta Iturrigane (egoitzaren parean) - Uri - Goñibarria - Maidaganeko Benta - Orduña - Unbe - Malakate.

AREETA

Antolatzaileak: Berantzagi Dantza Taldea.

ABENDUAREN 23AN

Eskoletako plazan:

- * 18:30: pailazoak.

ABENDUAREN 24AN

Eskoletako plazan:

- * 10:30: kalejira Bizkaia Zubiraino, Adiskidetasun eta Nagusia kaleetatik igaroz. Olentzeroren harrera Bizkaiko Zubian.
- * 11:00: irudi eta erakusketak zabaltzea, eta erromeria.
- * 12:15: Berantzagi Dantza Taldearen emanaldia.
- * 13:00: bertsolariak ALBE, Algortako Bertsolari Eskolaren eskutik.
- * 18:30: kalejira eta Berantzagi Dantza Taldea.

IBILBIDEA: Eskoletako plaza-Nagusi-Adiskidetasun-Nagusia- Geltokia plaza-Arlamendi-Las Mercedes kalea-Eskoletako plaza.





ABENDUAK 20 OSTEGUNA

Odol-ematea. Areetako Geltokia plazan, goizez eta arratsaldez.

Getxon zuzenean. Azkorriko Fangelokan, 20:00etan, Still River (bluesa). Sarrera dohainik.

Erakusketa. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, "Akuarelak", Leticia Gonzálezen eskutik. Urtarrilaren 20ra arte.

Ipuinaren ordua. Gobelako haur-liburutegian, 18:00etan, Roberto Mezquitaren eskutik, "Cuentos de gorra". Gaztelaniaz. 4 urtetik gora. Sarrera dohainik, edukiera bete arte.

Gabonetako kontzertua. Erredentorearen elizan, 20:00etan, Urepel abesbatza, BBK Kantuz korua eta Islares ganbera-koruaren emeraldia.

Hitzaldia. Romoko San José parrokiaren, 18:15ean, "Zoriontsuak izateko irakurtzea". Hizlaria: Pablo Zapata (irakaslea eta idazlea). Sarrera dohainik. Antolatzailea: Gizatiar, Romo-Areetako emakumezkoen gizarte- eta kultura-elkartea.

ABENDUAK 21 OSTIRALA

Zine-kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "C'est la vie" filmaren proiektzioa. Zuzendariak: Oliver Nakache-Eric Toledano. 7 urtetik gora. Sarrera: 3,50€.

Gabonetako kontzertuak. Santa Ana parrokiaren, 20:00etan, Ondarreta abesbatza, Ondarberri abesbatza eta Arima Kamerata ganbera orkestraren emeraldia. Romoko San Jose parrokiaren, 20:00etan, Zoza abesbatzaren emeraldia.

ABENDUAK 22 LARUNBATA

Olentzero. Azala ikusi.

Bertsolariak: ALBE Gala. Igeretxe jatetxean, 19:30ean, ALBERen (Algortako Bertsolari Eskola) eskutik. Sarrera gonbidapenez (Informazioa: www.albe.eus).

Gospel kontzertua. Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, The Upper Room. Sarrera: 10€.

Gabonetako kontzertuak. Algortako Nikolas parrokiaren, 20:00etan, Zirzira ahotz abesbatza eta Kimetz abesbatzaren emeraldia. Santa Ana parrokiaren, 20:30ean, Areetxo-ren emeraldia.

Ingurumen Aretoa. "Taloak familian" tailerra, 10:30etik 13:30ak arte. Ezinbestekoa da alde aurretik izena ematea. Informazioa: 688 88 35 96 eta <http://www.ingurumenaretoagetxo.eus>.

ABENDUAK 23 IGANDEA

Olentzero. Azala ikusi.

Haur zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Vaya bichos". Gaztelaniaz. Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

Ingurumen Aretoa. Txiki tailerrak 6-14 urte bitarteko umeentzat: "Egin itzazu gure inguruko animalien aztarnak", 10:30etik 13:30era. arte. Informazioa: 688

88 35 96 eta <http://www.ingurumenaretoagetxo.eus>.

ABENDUAK 24 ASTELEHENA

Olentzero. Azala ikusi.

ABENDUAK 26 ASTEAZKENA

Versadas, olerki kluba. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, olerkizaleen topagunea. Oraingo honetan, Fede Bilbao.

Haur antzerkia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan, "Inondik inora", Benetan Be-ren eskutik, euskaraz, 4 urtetik gorako umeentzat. Sarrera: 5€.

ABENDUAK 27 OSTEGUNA

Haur antzerkia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan, "El cuento de la azuzaina", Limiar Teatro-ren eskutik, gaztelaraz, 4 urtetik gorako umeentzat. Sarrera: 5€.

Getxon zuzenean. Areetako La zona tabernan, 20:00etan, "The Reixel 0" (pop-rocka). Sarrera dohainik.

ABENDUAK 28 OSTIRALA

Zine-kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "The disaster artist". Zuzendaria: James Franco. 7 urte baino gehiago dituztenentzat. Sarrera: 3,50€.

Urte amaierako kontzertua. 19:30ean, Tourseko San Martin parrokiaren, Lilura abesbatza eta Eskuz Eskuz abesbatzen emeraldia.

ABENDUAK 29 LARUNBATA

Ingurumen Aretoa. "Bolueko esploratzaileak". Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea. 10:00etatik 14:00ak arte. Doako jardura. Informazioa gehiago: 688 88 35 96 telefonoan eta <http://www.ingurumenaretoagetxo.eus> en.

ABENDUAK 30 IGANDEA

Haur zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Ana y Bruno". Gaztelaniaz. 7 urte baino gehiago dituztenentzat. Sarrera: 2,50€.

Ingurumen Aretoa. Txiki tailerrak 6-14 urte bitarteko umeentzat: egin itsasu zure usaintzako poltsatxoak. 10:30etik 13:30era. Dohako jardura. Informazioa gehiago: 688 88 35 96 telefonoan eta <http://www.ingurumenaretoagetxo.eus> en.

URTARRILAK 3 OSTEGUNA

Getxo zuzenean. The Piper's Irish Pub-en (Algorta), 20:00etan, Las Gildas (pop). Sarrera dohainik.

URTARRILAK 4 OSTIRALA

Cinema Paradiso. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Robin Campilloren "120 pulsaciones por minuto" filmaren proiektzioa (hiz: frantsesa, 16) Sarrera: 3,50€.

URTARRILAK 5 LARUNBATA

Erregeen desfilea. Andra Mari-Algorta. 17:30ean hasiko da. Ibilbidea: Andra Mariko kiroldegia, Maidagan, Aingeru Etorbidea, Telletxe, Mariandresena, Kasinoa. Ondoren, harrera Algortako Musika Eskolan (Getxo Antzokia) eta kolonia musikaletan parte hartu duten umeen taldeen emeraldia. **Areeta-Romo.** 19:30ean hasiko da. Ibilbidea: Areetako Etorbidea, Nagusia, Ezekiel Agirre, Kresaltxu, Gorbeja eta Gobelaurre. Harrera Andrés Isasi Musika Eskolan.

arratsaldeetan. Tel.: 602 31 44 23.

- **Premiazkoa.** Ingeles eta euskera irakaslea behar da Algortan. Tel. 649 98 45 79. Nieves.
- **Neska** euskalduna prest dago adinekoak zaintzeko eta/edo arropa litzatzeko. Esperientziaduna eta txostenekin. Arratsalde. Tel.: 635 806 619.

Edukiontzietatik kanpo dauden hondakinek ematen duten irudi txarra saihesteko asmoz

Dei egiten zaie hiritar, denda eta ostalaritzari laguntza eskatuz, Gabonetan era egokian birziklatzeko

Udalak laguntzarik handiena eskatzen die hiritar, denda eta ostalaritzako establezimenduei gabonetan hondakinen edukiontzia era egokian erabil ditzaten, egun hauetan kartoi, kutxa, ontzi eta bestelako hondakin askoz gehiago pilatzen delako, kontsumoa handiagotzen dela eta. "Gabonetan gure kaleak distiratsua daude eta horrela hautemateko funtsezkoa da edukiontzietatik kanpo hondakinik ez izatea. Horregatik, bereziki merkataritzakoei, ostalaritzakoei eta gure auzokideei beren laguntza eskatzen diegu. Gure aldetik ere, garbiketa eta bilketa zerbitzuei bereziki erreparatuko diegu", aipatu du Hirigintza, Azpiegitura eta Zerbitzuetako zinegotzia den Joseba Arregik. Zentzu horretan, gogoratzen da papera eta kartoa tolestuta eta



beti edukiontzi urdinean sartu behar dela; **ontziak** edukiontzi horiaren barruan sartu behar dira eta **beira** beti edukiontzi berdearen barruan (beirak edukiontzian errazago sartzeko ontzi bereziak eskuragarri dituzte ostalariek), eta **errefusa poltsa itxietan** sartu

behar da eta horiek beti edukiontzien barruan.

Halaber, Udaletik gogorarazten da **Etxeko Gauzak** (koltxoak, altzariak, etxetresna elektrikoak...) eta **Inausketa-hondakinak Biltzeko Zerbitzua** erabili behar dela kaleak garbi eta ibiltzeko moduan edukitzeko (tel.: 94 464 43 80); eta, era berean, **atez ateko bilketa zerbitzua** erabili behar dela merkataritzan, ostalaritzan, supermerkatuetan, **arrandegietan eta fruta-dendetan**, edo alta hartu zerbitzuan oraindik bertan izena eman barik egotekotan.

Azkenik, Udalak telefono zenbaki bat (94 464 43 80) eta helbide elektroniko bat (getxo@getxoR2022.com) jarri ditu ostalarien eskura, beraien negozioetan hondakin birziklagarri kopuru handia sortzen bada, noizean behin horiek batzeko behar zehatza badute...



Punta Begoñako aretoaren zaharberitzea

Punta Begoñako Galerietako egongela nagusiko zuraje elementuak berreskuratze lanak hasi dira. Herritarrentzako irekita dauden birgaitze lanek eraikinaren aprobetxamendu soziala eta kulturala optimizatzea ahalbidetuko dute. Leihate bereziak eta zurajea berreskuratuko dituen obra mundu mailan izen handia duen egurren arloko aditu batek zuzenduko du, Mikel Landak. Obrarekin batera, ikasleentzako tailerrak eta hainbat jardura izango dira. Horacio Echevarrietak Birmaniatik ekarraziz zuen Teka asierra, materialaren egiaztatutako propietatei jarraikiz eta hamarkadetan zehar oso ondo funtzionatu zuten materialak.



Algortako Etorbidea irekiko da berriz, Torrene eta Mariandresena artean

Ostiral honetan, hilak 21, irekiko da zirkulazioarentzat tarte hori, Algortako erdigunea berriz urbanizatzeko proiektuaren 2. Fasearen barruan dagoena eta udal Gobernuaren (EAJ/PNV eta PSE-EE) eta PPrentzaren arteko akordioaren emaitza dena. Orain arte gauzatutako bi faseetan, hortaz, lanak egiteko hasiera batean aurreikusitako epeak eta hiritarrekiko konpromisoa bete egin dira. Fase horren ondoren, non Mariandresenaren ere irisgarritasuna hobetu den, Manuel Gainza parkean lurpeko aparkalekua eraikitzeko lanak egingo dira. Otsailean abiatuko dira eta gaur egun proiektua ari da idazten.

2019ko TAOn egoiliar txartela bidali da

Datorren abenduaren 31n 2018ko TAOn egoiliar txartelaren balioa bukatuko da. Txartel berria, 2019. urterako balio duena, jabe bakoitzaren etxera bidali da. Abenduaren 31 baino lehenago bereizgarria jaso ezean, edo be-

rau galduz gero, interesdunak edo bere ordezkariak, urtarrilaren 2tik aurrera, udal bulegoetara joan beharko du (Foru kalea 1, 2. solairua, Zerga Kudeaketa), 2019ko Egoiliarraren bereizgarria eskuratzeko.

LABURRAK

***HAB eta Getxo Kiro-laken Gabonetako ordutegiak.** Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra, Herritarren Arretarako Bulegoen ordutegia honako hau izango da: 08:00-14:00, astelehene-tik ostiralera. Andra Mariko bulegoa, Benturillena 17an, itxita egongo da. Izapideak Administrazio Elektronikoren Bulegoaren bitartez egin daitezke, www.getxo.eus webgunean. Abenduaren 24 eta 31n, Udaletxearen bulegoak itxita egongo dira herritarrentzat. Bestalde, Gabonetako jaiak direla eta, Getxo Kiro-laken egoiliarren itxita egongo dira abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean. Era berean, abenduaren 24an eta 31n instalazioak 13:00etan itxiko dira.

***Zuzenketa.** Algortako Ostalarien Elkarteak 2.500€ko otzara solidarioa zozketatuko du. Bildutako dirua La Cuadri del Hospitalentzat izango da eta ez Salbamento Maritimo Humanitario GKEarentzat, aurreko zenbakian akats batengatik argitaratu zenez. Txartelak euro 1ean salduko dira honako leku hauetan: Pipers, Etxetxu, Baster, Tres Bien, Caza, Alvaritos, Biden, Huerto, Tellagorri, Alkartetxe, Unai, Boga, Rugby Getxo, Sustrai, Salem, Ajuria, La Plaza, Saniko, Biltegi, Nikkou, Satistegi eta Kai-xo, Óptica Argaluzaren laguntzarekin. Zenbaki sariduna abenduaren 22ko Gabonetako Loteriako sari nagusiaren azkeneko lau zenbakiekin bat datorrena izango da.



- **Neska** eskarmentuarekin eta gomendioekin lan bila dabil etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko, orduka, goiz eta

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazkotasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111



Larunbatean, hilak 22, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan

Gospel kontzertua, The Upper Room zazpikotearekin

The Upper Room taldeak gospel kontzertua eskainiko du larunbat honetan, abenduak 22, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan.

2005. urtean Donostian jaio zen taldea, Iñaki Miguelekin pianoan eta Mikel San Jose ahotsean. Gaur egun, zazpi-

kote formatoan aurkezten da, Andoni Etxebeste (bateria), Luka Martin (baxua), Karlos Etxaniz, Santi Romano eta Unai Moraza (koruak) batu zaizkielako lehenengo bie.

Eskainiko duten emanaldian, The Upper Roomek bere disko berrian ageri


diren abesti batzuk eskainiko ditu: *Mesedez, Aleluia, Zoriontasunaren bila edota Kebar Ibaian*, besteak beste; eta gospeleko beste abesti garrantzitsu batzuk: *Oh happy day, Whe the saints go marching in edo Down by the riverside*.

Kontzerturako sarrera 10€ da.

Gabonetako tailerrak Romon eta Algortan

Romoko eta Algortako Villamonteko Kultur Etxean, abenduaren 26, 27 eta 28an, eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an, haurrentzako tailerrak eta jarduerak izango dira. Jarduera horiek hizkuntzen elkarbizitza bilatzen duen BIZI proiektuaren barne daude. Horregatik, iaz bezala, euskaraz egingo dira nagusiki jarduerak eta hizkuntza menperatzen ez duten umeei arreta pertsonalizatua eskainiko diete antolatzaileek.

Izenematea aste honetan amaitu da baina libre egon daitezkeen plazei buruzko informazioa Romo Kultur Etxean, RKE, (94 454 91 33) eskadezake pertsona interesatuek eta baita Algortako Kultur Etxean (94 491 40 80) ere. Jarduerak doakoak izango dira.



“Yo quemé el edificio Windsor”

Pedro Fernández Puig idazle getxotarrak *Yo quemé el edificio Windsor* aurkeztu berri du, eleberri freskagarria eta dibertigarria; bertako protagonistak, Getxon bizi den abokatua eta burtsa-inbertitzaileak, Madrilén 2005ean Windsor dorrean gertatutako sutearen autoretzat aitortzen du. Lan horretan, komedia giltzarri hartuta, egileak kontatzen ditu inoiz argitu ez diren sutearen misterioak. Egile honen bigarren eleberria da hau; 2014an *Aixerrota el legado del Irlandés* argitaratu zuen, eta horrekin Algortako Sotavento kultur elkartearen 6. Elías Amezaga Literatura Saria irabazi zuen.

Egin jauzi! eta parte hartu Berbalagunan

Egizu Euskara elkarteak Berbalaguna kanpainaren 2. zatia kaleratu du eta parte hartzeko deia deitu du, Euskaraldia hizkuntz-ohiturak aldatzeko ariketa amaitu ondoren. *Egin jauzi eta segi ingurukoekin euskara erabiltzen!* lelopean, elkarteak Euskaraldian euskaraz egiten hasi zirenak animatu nahi ditu Berbalaguna taldeetan parte hartzera. Horietan euskaldun zaharrak eta euskara ikasten ari direnak elkartzen dira astean behin, ordu batez, gustuko gauzak (paseatzea, mendira joatea, kirola egitea...) egiteko euskaraz mintzatzen diren bitartean. Informazio gehiago: www.egizu.eus/ 619 935 541 eta izenematea hurrengo loturan egin dezake pertsona interesatuek: <https://bit.ly/2EnSOEV>



“Ausencias” erakusketa, Bilbon

Datorren urtarrilaren 10era arte bisitatu ahalko da Dock aretoan (Uribitarteko Pasealekua 3, Bilbo) *Ausencias* izenburuko erakusketa, Rafael Villa getxotarrarena. *Carencias* izenburua jarri nahi zion egileak “murgiltzen garen mundu hotz, etekinzale eta teknifikatuan, baliabide material eta afektiboen gabezia larria da. Azkenean, ‘Ausencias’ deitzea erabaki nuen: izen gazi-gozo honek denbora mugatu batez gure artean ez dagoena adierazi nahi duela pentsatu baitut, positiboki. Maitasun, justizia, elkar ulertze gabeziak eta abar”.



“Inondik Inora”

Datorren asteazkenean, hilak 26, 18:00etan, Benetan be antzerki konpainiak *Inondik inora* lana antzeztuko du Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, euskarazko haur ikuskizuna 4 urtetik gorako umeentzat izango da. Lan horrek, umorea eta poesia, musika zuzenean eta panpinak uztartuz, jakinmina eta desobedientzia sustatu nahi du haurrengan. Aiora Sedano, Leire Utxa eta Patricia Urrutia aktoreek postarien lana erakutsiko dute, beti etxerik etxe, bide, aire eta itsaso zabaletan zehar. Sarreraren prezioa 5 eurokoa da.



“El cuento de la azuzaina”

Zelakoa da familia normal bat? Limiar Teatro konpainia galdera horri erantzuten saiatuko da haur ikuskizun honetan, non familia eredu anitzak era alai eta jostarian erakusten diren. 4 urtetik gorako umeei zuzenduta, Azuzainako inprimategiko langileek dituzten ideia zoro eta barrerriak erakutsiko ditu enkargu bat sasoiz bukatzeko: familiei buruzko liburua. Antzezpina osteguneko izango da, hilak 27, 18:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Sarreraren prezioa: 5€.

Argibe elkarteko boluntarioek eta Fidias fundazioak, boluntariotzaren sariak jaso dituzte

Getxoko Bihotz Sakratuko erresidentzian parte hartzen duen Argibe elkarteko pertsona boluntarioen taldeak pertsona boluntarioaren saria jaso zuen aurreko astean SAREKIDE Getxoko entitate boluntarioen elkar-teak emanda, Udalaren laguntzarekin Romoko Kultur Etxean (RKE) ospatutako ekitaldian. Bestalde, Fidias fundazioak (Integraziorako eta arteen bidez garapen interpersone-lerako) jaso zuen entitate boluntarioaren saria XXV. Boluntariotza Topaketan. Urtero bezala, bertan Juanjo Quiñones, SAREKIDEko burua, Imanol Landa alkatea, Elena Coria Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia eta Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko ordezkariak izan ziren, besteak beste.

Argibe elkarte

Elkarte honetako boluntarioek laguntzen dute erresidentziako egoiliarren bakardadea arintzera, besteak beste, laguntze jarduera, txango, irteera eta lehiaketarekin, gizarte harremanak ez galtze aldera. Boluntarioek parte hartzen dute jardueretan, erresiden-



tziako arduradunekin koordinatuta. Astean 60 bat lagunek jasotzen dute boluntarioen onura.

Fidias fundazioa

Bestalde, Fidias fundazioak *Irakasle*

bat, ikasle bat izeneko proiektuagatik jaso zuen saria. Egoera zailean dauden 7 eta 22 urte bitarteko gazteei ematen diete eskola laguntza aipatutako proiektuan elkarteko kideek. Klaseak haratago doaz, boluntario

eta gazteen arteko harreman estuak eta bereziak sortzen baitira. Entitateak 99 pertsona boluntario ditu eta horietatik 67 Getxokoak dira. Getxon aurrera eramaten ari diren egitasmo-tan 68 ikasle artatzen dituzte.



Bisita bere 100. urtebetetzeagatik

Praxedes Bedoya de la Fuente Imanol Landa alkatearen, Elena Coria Gizarte Zerbitzuetako zinegotziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari baten bisita jaso zuen aurreko astean, 100. urte bete dituela eta. Emakumea Palencian jaio zen, eta Bilbon bizi ondoren, orain Algortan du bizilekua. Alaba bat eta seme baten ama, hiru iloba eta biloba bat ere ditu aukokideak. Ohi bezala, agintariak Aixerrotaren oroigarria, koadro bat eta lore sorta bat eman zizkieten aukokideari.

1.283.480€ banatu dira 1.666 GLLen artean, 2018an

Udalak 1.283.480€ banatu ditu 1.666 Gizarte Larrialdiko Laguntzen (GLL) artean 2018an. Laguntza horiek 674 familien artean banatu dira. Eusko Jaurlaritzaren eskuduntza dira diru-laguntzak, eta gure udalerrira 864.022€ bideratu ditu aurten, eta Udalak ipini du gainontzeko dirua, 419.458€, eskaera guztiei erantzuna eman ahal izateko. Udal Gizarte Zerbitzuek laguntzak bideratu, gestionatu eta ordaintzeko ardura dute. Azken urteotan GLLak emateko zuzendutako diru-kopurua areagotu da, 2017an 1.169.262€ banatu zirelako, eta 2016an 960.650€.

Aldizkakoak ez diren laguntza hauek gastu arrunt eta ezohikoei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten

pertsonei daude zuzenduta, eta gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko dira. Horrela, Getxon emandako zenbatekoaren %31 alokatze eta ostatu gastuak ordaintzeko izan da; %23 energia-gastuetarako; %22 etxea mantentzeko gastuetarako, %16 oinarriko beharretara, eta gainontzekoa konponketak eta instalazioak egiteko, altzariak eta etxe tresna elektrikoak erosteko eta zorpetzeari aurre egiteko.

Bestalde, datorren urtarrilaren 31n amaituko da 2018an zehar emandako Gizarte Larrialdietarako Laguntza guztiak justifikatzeko epea. Laguntzak justifikatzeko emandako kontzeptuaren ordainagiriak edo fakturak aurkeztu beharko dira.

KIROLAK

Getxoko Gabonetako 9. Itsas Lasterketa

Abenduaren 24an, astelehenarekin, Getxo Igeriketa Waterpolo klubak, Getxo Kirolak-en lankidetzarekin, Getxoko Gabonetako 9. Itsas Lasterketa antolatuko du. Ereagako hondartzaren eta Portu Zaharraren artean egingo da zeharkaldia. Lasterketa 300 metrokoa izango da, eta 16:30ean hasiko da. Kategoria absolutuan eta beterranoetan (1968 urtea baino lehenago jaiotakoak) izango da lehia.

Interesdunek lehiaketaren oinarri osoak kontsultatu eta izena eman dezakete www.getxoiv.com web orrialdean.



Gimnastika erritmikoko eskola magistrala

Bielorrusiako Melitina Stanioutak gimnastika erritmikoari buruzko eskola magistrala emango du igande honetan, abenduaren 23an, Fadurako kiroldegian. Getxo Gimnastika Klubak Getxo Kirolak-ekin elkarlanean antolatu du entrenamendu-saioa, eta eskola-adinako gimnastentzat nahiz lehiatzen ez diren zaleentzat eta federatuentzat da.

2010. urtetik 2015. urtera, Stanioutak brontzezko 3 domina eskuratu zituen Munduko txapelketetan, beste brontze bat Europako Jokoetan eta zilarrezko medaila Europako Txapelketan. Informazioa eta izen-emateak: club_ritmica_getxo@hotmail.com



Andra Mariko 37. Krosa eta 3. San Silvestre TRC

Itxas Argia Elkartek antolatuta, datorren igandean, abenduaren 30ean, 11:00etan, Andra Mariko Krosaren 37. ekitaldia egingo da. Herri-lasterketa hau 8,8 kilometrokoa izango da, eta Andra Mariko kiroldegitik irtengo da; helmuga ere bertan kokatuko da. Lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago, 10:30ean, 2,5 kilometroko proba antolatuko da 2005etik aurrera jaiotako haurrentzat. Izen-ematea www.itxas-argia.com web orrialdean, elkartearen Facebook-aren bitartez edo Kantxa Kirol Moda kirol-dendan egin daiteke.

Bestalde, Trirunners taldeak 3. San Silvestre TRC antolatu du abenduaren 31rako, astelehena, 10:30etik aurrera. Lasterketa hau ere herrikoa da eta Bizkaia Zubian izango ditu irteera eta helmuga; 7,5 kilometroko distantzia bete beharko dute korrikalariak. Lasterketan izena emateko prezioa 8€-koa da eta bertan parte hartu nahi duten guztiek Trirunners-ek Areetan duen dendan eman dezakete izena.